

Getxotik Boliviara Boliviatik Getxora



 **ZaBalketa**



Getxo
bizi ezazu

Lankidetz
Cooperación




Bolivia.

Kultur aniztasuna eta aberastasuna

Bolivia Hegoaldeko Amerikako herrialde handi bat da, Euskadi baino 150 aldiz handiagoa da eta 10 milioi lagun baino apur bat gehiago bizi dira bertan.

Bere ezaugarri nagusia alderdi desberdinetan duen aniztasun handia izango da seguru asko. Geografiari dagokionez, 6.000 metro baino gehiagoko lurralde menditsuak, lautada tropikal zabalak eta oihan euritsu sakonak ditu.



Munduan animalia eta landare aniztasun handiena duen 10 herrialdeetako bat da. Kultura arloan ere aniztasuna da nagusi: Andeetan, esaterako, Aimarak eta Kitxuak daude, lautadetan, aldiz, Guaraniak edo Txigitanoak.

Bolivian 30 nazio indigena baino gehiago daude eta bakoitzak bere hizkuntza eta mundu-ikuskera du.

Zabalketak eta Herri Indigena egiten dute Bolivian

Aimara komunitateak, La Paz.



Valluna komunitateak, Santa Cruz.



Kitxua komunitateak, Chuquisaca.



hauek elkarrekin lan

Txikitana komunitateak, Santa Cruz.



Guarani/Txikitana/Ayoreode komunitateak, Santa Cruz.



Guarani komunitateak, Chuquisaca.



Zabalketa Bolivian

ZABALKETA Gobernuz Kanpoko Erakunde bat da eta Getxon jaio zen 1990ean. Sentsibilizazio eta Hezkuntza arloan aritzen gara, bai Getxon bai Bizkaiko eta Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan. Nazioartean, aldiz, herrialde askotan gabilitza garapenerako lankidetzat proiektuetan.

ZABALKETA Gaztelueta Ikastetxeko Ikasle Ohiek hasitako erakunde bat da eta mundu bidezkoago eta solidario bat lortzeko lana egin nahi duten borondate oneko pertsona guztiei irekita dago.

ZABALKETA 2000. urteaz gero dago Bolivian eta eskatzen diguten komunitateetako arazoak diagnostikoak egiten laguntzen dugu. Gero, arazo horietan eraginik onena izan dezaketen ekintzak diseinatzen parte hartzen dugu, ekintzok ongi burutzeko finantza baliabideak aurkitzen ditugu eta, azkenik, ikasitako esperientziak ebaluatzen eta zabaltzen ditugu. Boliviako proiektuak egiteko, ZABALKETAk Boliviako erakunde SARE bat du eta horrekin aritzen da lanean.

ZABALKETAk Bolivian daramatzen 12 urte hauetan 37 proiektu egin ditugu, proiektu horiekin 10 milioi euro baino gehiago mobilizatu dira eta 70.000 lagun baino gehiago mesedetu dira. Finantzazio iturri desberdinetatik eman zaizkigu baliabideak, besteak beste, Getxoko Udaleko Lankidetzarako programatik; gainera, denak Areetan dugun bulegotik kudeatu dira. Horregatik oso harreman estua dago Getxo eta Bolivia artean: *GetxotikBoliviara*.

Gaur egun burutzen ari diren Zabalketako Proiektuak

1. EREMUA - Aimara komunitateak, La Paz.

Familien diru sarrerak hobetzeko ari gara lanean, ekoizpen azpiegiturretan inbertitzen da (ur hartuneetan, ureztatze teknifikatuan, larreak hobetzen eta umeak hazten), ekoizleak teknikoki gaitzen dira eta komunitateko antolakuntza errazteko gizarte programak egiten dira.

KOKAPENA: Mecapaca udalerriko Santiago de Collana kantoiko 8 komunitate Aimara.

TOKIKO BAZKIDEA: AYNI Elkarte Zibila. Boliviako GKE bat da, La Pazen du egoitza nagusia eta Rio Abajo eremuko landa komunitate aimarekin aritzen da lanean.

www.ayni.org.bo

2. EREMUA - Valluna komunitateak, Santa Cruz.

Buruzagi indigenak trebatzeko ikastetxeak bi espezialitate ditu: Kudeaketa publikoa eta teknologia iraunkorra. Zentroan gaitzen diren pertsonak dira ondoren inguruko landa komunitateetan teknologia eta kudeaketa arloko aldaketak bultzatzen dituztenak. Besteak beste, REPANAK (natur ondareko erreserbak) ezartzen dituzte iturburuak babesteko.

KOKAPENA: Santa Cruzeko arantako 80 landa komunitate.


TOKIKO BAZKIDEA: Instituto de Capacitación del Oriente (ICO). Boliviako GKE bat da, Santa Cruzen eta Valle Granden ditu egoitzak eta duela 25 urte hasi zen landa ingurua sustatzeko lanean. **www.ico-bo.org**


3. EREMUA - Kitxua komunitateak, Chuquisaca.

Landa eremuko 5 barnetegi eraiki dira; guztira 500 lagunentzako gaitasuna dute eta emakumeei bigarren mailako ikasketak egiteko bidea erraztu nahi zaie. Era berean, helduak gaitzeko 2 zentro eta genero indarkeriaren biktimak artatzeko aldi baterako 2 etxe ere baditu.

KOKAPENA: Landa inguruko 100 komunitate San Lucas, Camargo eta Culpina udalerrietan.

TOKIKO BAZKIDEA: Asociación CENTRO AYNI. Boliviako GKE bat da, egoitza nagusia La Pazen dauka eta ordezkariak San Lucasen eta Camargon. Emakumeen eskubideen defentsan espezializatuta dago aspalditik. **centroayni@entelnet.bo**





4. EREMUA - Txikitana komunitateak. Santa Cruz.

Buruzagien Eskola bat dago emakumeak eta gazteak gaitzeko, euren erakunde indigenetako buruzagitza har dezaten eta hortik euren lurraldearen garapena kudeatu biztanleria guztiak aukera-berdintasuna izanaz.

KOKAPENA: Santa Cruz departamenduko 170 komunitate indigena Txikitana.

TOKIKO BAZKIDEA: PROCESO SERVICIOS EDUCATIVOS. Boliviako GKE honen egoitza Santa Cruz de la Sierran dago, eta garapen estrategia legez heziketan espezializatu da.

www.procesoservicioseducativos.org


5. EREMUA - Guarani/Txikitana/Ayoreode komunitateak. Santa Cruz.

Txikitana komunitateen gaitasun teknikoak eta basoak kudeatzeko gaitasuna hobetzeko, zur ekoizleen elkarteak eratu dira eta kudeaketa iraunkorrerako planak jarri dira abian lurralde osoan.

KOKAPENA: Santa Cruz departamenduko Monte Verde eremuko 8 komunitate Txikitana.

TOKIKO BAZKIDEA: APCOB. Boliviako GKE honek 25 urte daramatza beheko lurretako indigena taldeen zerbitzura lanean.

www.apcob.org.bo



6. EREMUA - Guarani komunitateak. Chuquisaca.

Familia guarani talde bati birkokatzen lagundu, duela gutxi erroldatze sistematik libre geratu baitira eta Huacareta udalerriko eremu batera joan dira estatuak emandako lurralde batean komunitate berriak eratzeko. Parte hartzearen ezaugarriak direla eta, azpiegiturak egin behar dira (etxeak, eskola, osasun-zentroa...) eta nekazaritza eta arrantzako ekoizpen sistema osoa abian jarri behar da.

KOKAPENA: Huacareta lurraldeko 6 komunitate Guarani.

TOKIKO BAZKIDEA: NORSUD fundazioa. Boliviako GKE honek Sucren du egoitza eta Chacon komunitate Guaraniekin lanean aritzeko lerro bat dauka.

www.norsud.org



Getxoko komunitate boliviarrak

Getxo da atzerritar gehien hartzen duen udalerrietako bat.

Udalerriak guztira 81.000 biztanle ditu eta 5.600 getxotarrek atzerriko herritartasuna dute, hau da, biztanleriaren %7ak du atzerriko herritartasuna.

Getxon 1.500 boliviarrak bizi dira gutxi gorabehera. Getxon bizi den 4 atzerritarretatik bat Boliviakoa da.


Getxoko boliviarraren ezaugarri nabarmenenetako bi hauek dira: Gehienak emakumeak dira, %64 dira **emakumeak**, batez ere etxeko lanak egiteko eta pertsonak zaintzeko behar baita jendea eta **gazteak** dira: 45 urtez azpikoa da ia %90, aldiz, Getxon bertako biztanleriaren %50 da 45 urtez gorakoa.

Boliviarrak gehienak Santa Cruzekoak dira (%55), ondoren Cochabambakoak daude (%14) eta hirugarren postuan La Pazekoak (%4).


Getxon bizi diren boliviarraren ikasketa maila hau da: %20k lehen mailako ikasketak ditu, %54k eskola graduatua du, %20k batxilergoko ikasketak eta lanbide-heziketakoak eta %6 unibertsitateko ikasketekiko profesionalak dira.

Bolivia oso presente dago Getxon. Boliviako komunitatea da udalerriko aktiboenetako bat, kulturarteko elkarbizitza sustatzen dute eta *BoliviatikGetxora* harremana sustatzen dute.


Boliviako biztanleriaren eta Getxokoaren arteko alderaketa demografikoa.



Getxoko komunitate boliviarraren jatorria.



Getxoko boliviarrak biztanleriaren ikasketa maila.



Getxoko elkarte boliviarren informazioa



Berdintasuna

Atzerriko etorkinek integrazioarako eta berdintasunerako elkarteak.

Tel. zk.: 688 62 93 26
688 62 95 20

berdintasuna.getxo@hotmail.com



Adrebol

Boliviarr egoiliarren kirol elkarteak.

Tel. zk.: 94 404 53 30
667 76 63 55

adre_bol@hotmail.com



Acsabol

Sangre Boliviana kultur elkarteak.

Tel. zk.: 628733983

sangre_boliviana@hotmail.com



Suyana

Dantza eta musika kultur elkarteak

Tel. zk.: 678 47 47 48

suyana.info@gmail.com





Sede Central:

c/ Andrés Larrazabal 3, 2º Izda.

48930 Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 464 36 94

Delegación Gipuzkoa:

c/ Sancho el Sabio 17, 10º

20010 Donostia-San Sebastián

zabalketa@zabalketa.org

www.zabalketa.org

NIF: G-48461065

C/c: BBK 2095 0047 80 3830292204

